**ESTATUTOS DEL ORGANISMO AUTONOMO LOCAL**

**"ARRASATEKO UDALEKO KIROL ERAKUNDE AUTONOMOA"**

(Aprobados por el Ayuntamiento Pleno el día 29 de Abril de 1988)

CAPITULO I

**OBJETO, NATURALEZA Y FUNCIONES**

Artículo 1. - El Ayuntamiento de Arrasate, al amparo de lo establecido en el artículo 85 de la Ley Reguladora de las Bases de Régimen local, crea el Organismo Autónomo Local denominado "ARRASATEKO UDALEKO KIROL ERAKUNDE AUTONOMOA" para el cumplimiento de las finalidades que se concretan en los presentes estatutos.

Este Organismo sucede, a todos los efectos, a la Fundación Pública "Polideportivo de Mondragón", que fue creada por el Ayuntamiento el 27 de Febrero de 1981 con idéntica finalidad, pero circunscrita al cometido de las instalaciones del Polideportivo Municipal.

Artículo 2. - El Organismo tiene personalidad jurídica propia y plena capacidad de obrar para administrar, adquirir derechos, contratar y asumir obligaciones, referidas a la consecución de sus objetivos y finalidades.

Tiene, asimismo, autonomía administrativa y económica en la medida en que le reconocen las leyes que le son de aplicación y, particularmente, el Reglamento de Servicios de las Corporaciones locales, así como los presentes Estatutos.

Artículo 3. - El objeto del Organismo deportivo se dirige a:

a) Fomentar el desarrollo de las actividades deportivas de la villa de Arrasate, coordinando todos los esfuerzos e iniciativas que se realicen con una visión de conjunto, sin perjuicio de las Facultades que correspondan a las Entidades respectivas.

b) Encauzar y promover el deporte escolar y de aficionados; llevando a cabo en particular las siguientes acciones:

. la psicomotricidad y el aprendizaje infantil a traves de la educación física.

. colaboración en la educación física de base para la E.G.B. y la iniciación deportiva para el BUP.

. la promoción deportiva infantil (Deporte Extraescolar).

. la realización de escuelas deportivas.

c) Promocionar a todos los vecinos posibilidades reales de poder practicar las diversas modalidades deportivas, poniendo especial interés en la promoción de la actividad física en adultos (Deporte para todos).

Artículo 4. - Para el cumplimiento de sus fines, el Organismo estará capacitado para el ejercicio de las siguientes actividades:

a) Construir y/o adquirir en propiedad y/o en uso instalaciones deportivas.

b) Acondicionar, conservar y administrar las instalaciones deportivas.

c) Coordinar la utilización de dichas instalaciones, así como los programas de actividades deportivas en el término municipal.

d) Conceder asignaciones para las actividades deportivas, de conformidad con la normativa que apruebe la Corporación en base a los criterios previamente formulados por los clubs deportivos a la Junta Rectora.

e) Contratar el personal técnico y administrativo necesario para atender las distintas finalidades del Organismo.

f) Formalizar convenios o contratos, públicos o privados, relativos a actos de adquisición y administración de bienes inmuebles o muebles necesarios para el cumplimiento de sus fines.

g) Organizar todos los servicios del Organismo.

h) Solicitar y aceptar subvenciones, auxilio y otras ayudas de los Organismos públicos y particulares.

i) Formalizar contratos de tesorería y operaciones de préstamo para el cumplimiento óptimo de sus fines y personarse e interponer toda clase de reclamaciones y acciones ante las autoridades administrativas, gubernativas y jurídicas dentro del ámbito de su actuación.

Artículo 5. - El domicilio del Organismo radicará provisionalmente en el Polideportivo-Municipal de Arrasate y en el futuro en la Casa de Cultura y Deportes que se pueda crear.

## CAPITULO II

## ORGANOS DE GOBIERNO Y ADMINISTRACION

Artículo 6. - El Gobierno y la Administración del Organismo Autónomo Deportivo estará a cargo de la Junta Rectora.

Artículo 7. - La Junta Rectora estará constituida por los siguientes miembros:

- Presidente: el Alcalde o corporativo en quien delegue.

- Vocales: - un concejal de cada partido político con representación en el Ayuntamiento, excluyendo el que esté representado por el Presidente.

  - un representante de los Centros escolares.

  - tres representantes de los clubs deportivos del municipio.

- un representante de los usuarios a las instalaciones deportivas municipales.

- Secretario: actuará de secretario, con voz y sin voto, el Gerente del Organismo.

En su caso, participarán también en la Junta, con voz y sin voto, el Técnico Deportivo y el Médico Deportivo del Organismo.

Artículo 8. - Los vocales de la Junta Rectora serán nombrados por el Alcalde de la siguiente forma:

a) los representantes de los grupos políticos que forman el Ayuntamiento, a propuesta de los respectivos portavoces de los citados grupos.

b) el representante de los centros escolares, a propuesta del Consejo Escolar.

c) los representantes de los clubs, a propuesta de éstos.

d) el representante de los usuarios habrá de ser abonado, mayor de edad y residente y empadronado en Arrasate. Será nombrado a propuesta de la OMIC.

De la formación de la Junta Rectora y del nombramiento de sus miembros se dará cuenta al Pleno en la primera sesión que celebre.

Artículo 9. - Los miembros de la Junta Rectora cesarán en sus cargos en los siguientes casos:

a) A petición propia.

b) Los que ejerzan su condición en virtud de cargos específicos, al cese en los mismos.

c) Los corporativos cuando cesen las condiciones que dieron origen a su nombramiento.

d) Los vocales representantes de las distintas Entidades y Asociaciones, cuando así lo acuerden los órganos de gobierno de las mismas y, en todo caso, cuando hayan trascurrido dos años de su designación, pudiendo ser reelegidos.

En el supuesto de que se produzca una vacante, cualquiera que fuese su causa, se procederá al nombramiento de nuevo miembro que sustituirá al anterior a todos los efectos, dando cuenta de ello al Pleno Municipal.

Artículo 10. - Corresponde a la Junta Rectora las siguientes funciones:

a) Aprobar los Reglamentos de Servicios y de Régimen Interior del Consejo, así como su modificación, ampliación y puesta en vigor.

b) Aprobar los planes y programas de actuación convenientes para el cumplimiento del objeto del Organismo y ejecutarlos adecuadamente.

c) Contratar las obras y servicios previstos en los planes y programas de actuación, de conformidad con las consignaciones presupuestarias.

d) Elaborar el proyecto de presupuesto anual del Organismo, y elevarlo al Ayuntamiento Pleno para su aprobación.

e) Desarrollar la gestión económica del Organismo, con arreglo al presupuesto aprobado por el Ayuntamiento.

f) Declarar la admisión de abonados y su expulsión cuando sea procedente.

g) La conservación, mantenimiento y mejoras en las instalaciones con el espíritu de ofrecer mejor servicio a sus usuarios.

h) Contratar al personal necesario, conforme a los presupuestos y a la plantilla al efecto aprobados por el Ayuntamiento Pleno.

i) Realizar toda clase de actos que, no siendo competencia exclusiva el Ayuntamiento Pleno, derivan de la plena capacidad jurídica del Organismo de acuerdo con lo establecido en el artículo 2° de estos estatutos.

j) Formar y revisar anualmente el inventario de los bienes adscritos al Organismo.

k) Sancionar las faltas cometidas por los usuarios de sus servicios.

l) Tramitar los expedientes disciplinarios al personal adscrito al Organismo y resolverlos en los casos de faltas leves.

Artículo 11. - Los distintos grupos políticos que componen la Junta, al objeto de lograr cotas de responsabilidad homogéneas en el gobierno del Organismo, podrán distribuirse el seguimiento y la atención a los diferentes clubs y entidades deportivas por áreas clasificadas según criterios coherentes y equilibrados.

Artículo 12. - Corresponde al Presidente de la Junta Rectora:

a) Convocar, presidir, suspender y levantar las reuniones, dirigir las deliberaciones y decidir los empates de las votaciones.

b) Ostentar la representación del Organismo a todos los efectos.

c) El ejercicio de acciones en los casos de urgencia, dando cuenta a la Junta en su primera sesión.

d) Dictar las disposiciones precisas para la ejecución de los acuerdos.

e) Cualesquiera otras funciones que le confiera la Junta y en general dictar las disposiciones que requiera el mejor funcionamiento de los servicios.

Artículo 13. - Al Alcalde, como Presidente Nato de la Entidad, corresponde la superior inspección y dirección del servicio, y en su virtud podrá suspender la ejecución de los acuerdos de la Junta, cuando:

a) Sean constitutivos de delito.

b) Recaigan en asuntos que no sean de su competencia.

c) Fueren contrarios a los intereses generales del municipio o a las Instalaciones Deportivas.

d) Constituyan infracción manifiesta de las Leyes, Reglamentos, Ordenanzas y disposiciones del Ayuntamiento.

Artículo 14. - El Presidente podrá nombrar una persona, en todo caso integrante de su propio partido, en quien delegue sus funciones en caso de ausencia, vacante o enfermedad.

Los restantes miembros de la Junta Rectora podrán ser asimismo sustituidos en los mismos casos por los correspondientes suplentes.

CAPITULO III

## REGIMEN DE SESIONES

Artículo 15. - La Junta del Organismo Autónomo Deportivo se reunirá con carácter ordinario cada 30 días y siempre que se estime necesario por la Presidencia o 1/3 de sus miembros con derecho a voto.

Artículo 16. - La convocatoria de las sesiones ordinarias y extraordinarias de la Junta Rectora se hará por el Presidente con una antelación mínima de cuarenta y ocho horas, acompañada del Orden del Día en el que se fijarán los asuntos a tratar en cada reunión.

Artículo 17. - Las reuniones se celebrarán cuando concurran como mínimo, además del Presidente:

a) La mitad más uno de los componentes, en la primera convocatoria.

b) 1/3 de los miembros en segunda convocatoria, media hora más tarde.

Artículo 18. - Se podrán tratar asuntos no incluídos en el Orden del Día cuando, previamente, sean declarados de urgencia, declaración que exigirá el acuerdo por mayoría de los asistentes a la reunión.

Artículo 19. - Los acuerdos se tomarán por mayoría de votos, y en caso de empate corresponderá dirimirlo al Presidente con el voto de calidad.

CAPITULO IV

## PERSONAL

Artículo 20. - El Organismo Autónomo Deportivo dispondrá del personal necesario, cuyo número, categoría y funciones, se determinarán en las plantillas aprobadas por el Ayuntamiento Pleno, a propuesta de la Junta.

La retribución de dicho personal figurará en el presupuesto del Organismo.

Artículo 21. - La plantilla de personal podrá estar formada por:

a) los funcionarios o empleados del Ayuntamiento destinados al Organismo

b) el personal contratado por el propio Organismo.

Artículo 22. - El Organismo nombrará directamente al personal, que sin ser funcionarios municipales, precise para su propio servicio, cubriendo sus puestos de trabajo conforme a la plantilla aprobada por el Pleno y mediante la aplicación de los procesos selectivos que en cada caso determine la Junta Rectora. Este personal quedará sometido a la legislación laboral.

Artículo 23. - El Organismo podrá disponer, previa aprobación por la Corporación, de la siguiente plantilla técnico-directiva:

- Gerente
- Técnico deportivo
- Médico deportivo

Artículo 24. - Serán funciones del Gerente las siguientes:

a) Actuar de secretario de la Junta Rectora, y como tal:

- preparar los asuntos que han de servir al Presidente para formar el Orden del Día de cada convocatoria.

- redactar el acta de las reuniones y, una vez aprobada, ordenar la transcripción al libro de actas.

- custodiar los libros, documentos y sellos de la Entidad.

b) Ejecutar y hacer cumplir los acuerdos del Organismo.

c) Desarrollar la gestión económica con arreglo al presupuesto aprobado y las bases establecidas.

d) Ordenar todos los pagos que tengan consignación expresa.

e) Desempeñar la Jefatura del personal del Organismo.

f) Las demás funciones, de orden técnico-administrativo que el Organismo le confiera.

Artículo 25. - Corresponde al Técnico Deportivo:

a) Asesorar a la Junta Rectora en todas las cuestiones de índole deportiva que requiera.

b) Coordinar las actividades deportivas de las distintas instalaciones públicas municipales, dentro de los programas que el Organismo Deportivo establezca.

c) Inspeccionar, de acuerdo con las orientaciones recibidas de la Junta del Organismo, todas las instalaciones deportivas.

d) Promover, de acuerdo con los Organos Gestores de las distintas entidades y organizaciones deportivas del Municipio, confrontaciones, campeonatos, espectáculos deportivos, etc.

e) Organizar y promover la práctica del Deporte no competitivo y escolar
de acuerdo con los órganos competentes del resto de Ayuntamientos de la comarca y la Diputación.

Artículo 26. - Corresponde al médico deportivo:

a) Ofrecer orientación hacia las actividades más adecuadas a las características psicofísicas del deportista.

b) Facilitar consejos y divulgación de medidas higienico-dietéticas.

c) Efectuar controles periódicos y reconocimientos especiales a las personas cuya actividad física lo haga necesario.

d) Seguimientos de reincorporación al deporte tras lesiones o enfermedades.

e) Docencia a los distintos niveles de usuarios de las instalaciones deportivas, con especial interés en educación deportiva escolar.

f) Facilitar a la dirección informes periódicos sobre la actividad desarrollada, así como una memoria al finalizar el servicio.

## CAPITULO V

## **REGIMEN LINGUISTICO**

Artículo 27. - En orden al cumplimiento de lo dispuesto en la Ley Básica de Normalización del uso del Euskera, de 24 de Noviembre de 1982, así como el Decreto 250/1986 del 25 de Noviembre, sobre "Uso y Normalización del Euskera en las Administraciones Públicas de la Comunidad Autónoma del País Vasco", se establecen las siguientes normas:

a) El euskera tendrá el carácter tanto de lengua de servicio al ciudadano como de lengua de trabajo, para lo cual el Organismo adoptará los medios administrativos oportunos.

b) El personal del Organismo deberá capacitarse convenientemente para que el desempeño de sus funciones pueda ejercitarse indistintamente en las dos lenguas oficiales.

c) Se recomendará a los partidos políticos, así como a los Clubs, centros escolares y demás estamentos representados en el Organismo para que efectúen sus nombramientos a favor de personas con capacidad bilingüe.

d) Se recomendará a los partidos políticos, así como a los Clubs, centros escolares y demás estamentos representados en el Organismo para que efectúen sus nombramientos a favor de personas con capacidad bilingüe.

e) Se priorizará la redacción en euskera de las actas, expedientes y demás documentación administrativa que genere el Organismo.

f) Se tenderá asimismo a la normalización del euskera en las relaciones exteriores que mantenga el Organismo.

g) El Servicio de Euskera del Ayuntamiento tendrá facultad para orientar asesorar y supervisar la aplicación de las presentes normas.

h) El Organismo redactará una normativa de desarrollo del presente capítulo.

## CAPITULO VI

## **REGIMEN ECONOMICO**

Artículo 28. - El patrimonio del Organismo Deportivo Autónomo estará constituido:

a) Por el Complejo Polideportivo Municipal, sito en Musakola Auzoa.

b) Por las instalaciones de fútbol sitas en Gesalibar Auzoa (Estadio Atxabalpe).

c) Por otros bienes que el Organismo pueda adquirir o que el Ayuntamiento de Arrasate le adscriba, aporte o afecte.

Artículo 29. - El Patrimonio queda afectado, exclusivamente, a los fines del Servicio y pertenecerá en pleno dominio al Ayuntamiento.

Artículo 30. - Los recursos económicos del Organismo estarán constituídos por:

a) Los productos y rentas de su patrimonio.

b) Las subvenciones procedentes de organismos públicos.

c) Las aportaciones que destine a este fin el Ayuntamiento de Arrasate con cargo a sus presupuestos.

d) Los donativos y legados de personas físicas o jurídicas.

e) Las cantidades que se obtengan por cuotas de los abonados, entradas del público en el recinto, espectáculos que se celebren, cursillos y clases de práctica deportiva, en las condiciones que la Junta Rectora determine.

f) Importe de los alquileres de las instalaciones.

g) El importe de los anticipos y préstamos que se obtengan.

h) Cualquier otro recurso que pueda serle atribuido.

Artículo 31. - La Hacienda del Organismo, responderá de las obligaciones y deudas contraidas, sin que tal responsabilidad alcance al patrimonio a que se refiere el artículo 27.

Artículo 32. - Los ingresos que se obtengan se destinarán a cubrir los gastos y el fondo de reserva, y el remantente se destinará íntegramente a mejorar y ampliar las instalaciones y servicios, cubriendo los objetivos del Organismo Deportivo.

Artículo 33. - Antes del 31 de Enero de cada año la Junta Rectora someterá al Ayuntamiento, para su aprobación, la liquidación del presupuesto del ejercicio anterior.

Asimismo, antes del 1 de Junio, presentará las cuentas generales y de administración del Patrimonio correspondiente también al ejercicio anterior

Artículo 34. - Los presupuestos se confeccionarán, para cada ejercicio económico por años naturales y se someterán al Ayuntamiento para su aprobación en los plazos legalmente establecidos.

CAPITULO VII

## REGIMEN JURIDICO

Artículo 35. - Los acuerdos de la Junta Rectora podrán ser recurridos en alzada ante el Ayuntamiento, en el término de quince días. Dicha resolución pondrá fin a la vía administrativa.

Artículo 36. - El Ayuntamiento podrá, por propia iniciativa o a instancia de la Junta y previos los trámites requeridos para su aprobación, modificar estos Estatutos.

Artículo 37. - Las relaciones entre el Organismo Autónomo Deportivo y el Ayuntamiento se efectuarán a través del Presidente de la Junta Rectora.

CAPITULO VIII

## REGIMEN DE TUTELA

Artículo 38. - En orden al debido ejercicio de la suprema función directoria y tuitiva del Servicio, que corresponde indeclinablemente al Ayuntamiento, los órganos de gobierno y administración del Organismo Autónomo Deportivo estarán obligados a dar cuenta al mismo de los asuntos que rebasen el carácter de actos de mera gestión y no figuren entre los que vengan atribuidos específicamente a su primitiva competencia, con arreglo a estos Estatutos.

Artículo 39. - Los actos de gobierno y administración del Servicio estarán sujetos a autorización y aprobación en los casos procedentes, según lo previsto en estos estatutos y en las demás disposiciones aplicables.

Las facultades tutelares abarcarán, en todo caso:

1º- La aprobación de:

a) la plantilla del personal y sus retribuciones.

b) los convenios colectivos de trabajo.

c) el presupuesto del Organismo Autónomo y su liquidación.

d) las cuentas anuales.

e) la enajenación, cesión o gravamen de bienes inmuebles.

f) la apelación al crédito público y la emisión de obligaciones.

g) las tasas y derechos que se cobrarán a los usuarios.

h) la normativa que ha de regir la concesión de las subvenciones.

2º- El conocimiento de:

a) los asuntos que se incluyen en el Orden del Día de las reuniones del Organismo, que se comunicarán, en todo caso, al Secretario y al Interventor de la Corporación y al Alcalde, dándose cuenta asimismo a la Comisión de Gobierno.

b) los acuerdos del Organismo, que se comunicarán de la misma forma.

Artículo 40. - El Ayuntamiento podrá realizar auditorías a través de las personas que designe.

CAPITULO IX

## DISOLUCION

Artículo 41. - El Ayuntamiento de Arrasate, en el ejercicio de la facultad que le confiere el artículo 30 del Reglamento de Servicios de las Corporaciones Locales, podrá acordar la disolución del Organismo.

Artículo 42. - En caso de disolución del Organismo, el Ayuntamiento de Arrasate le sucederá universalmente.

## DISPOSICION DEROGATORIA

Artículo 43. - Quedan derogados los Estatutos aprobados por la Corporación con fecha 17 de Febrero de 1981 para regir la Fundación Pública Polideportivo Municipal.

# ARRASATEKO UDALEKO KIROL ERAKUNDE AUTONOMOA

(1988ko Apirilaren 29an Udal Plenoak onartuta)

## I. KAPITULUA

## HELBURUA, IZAERA ETA FUNTZIOAK

1. artikulua. - Arrasateko Udalak, Erregimen Lokalelo Oinarrien Lege Arautzailearen 85. artikuluan ezarritakoaren babesean, "ARRASATEKO UDALAREN KIROL ERAKUNDE AUTONOMOA" sortzen du, Estatutu hauetan zehazten diren helburuak betetzeko.

Organismo hau, ondorio guztietarako, "Arrasateko Kiroldegia" Fundazio Publikoaren ordezko da, Fundazio hori Udalak 1981.eko Otsailaren 27an sortu zuelarik helburu berdinaz, baina Udal Kiroldegiko instalazioen esparrura mugatua.

2. artikulua. - Erakundeak bere nortasun juridikoa du eta iharduteko gaitasun osoa administratu, eskubideak lortu, kontratatu eta obligazioal beregain hartzeko, beti ere bere helburu eta xedeak lortu ahal izateko.

Halaber, autonomia administratibo eta ekonomikoa ere badu, baina aplikaziozkoak zaizkion legeek eta, batez ere, Korporazio Lokalen Zerbitzu-Araudiak eta oraingo Estatutu hauek aitortzen dioten neurrian.

3. artikulua. - Erakundearen helburuak honako hauek izango dira:

a) Arrasateko kirolgintzaren garapena bizkortzea planteiatzen diren ahaleginak eta iniziatibak ikuspegi orokorrez koordinatuz, entitate bakoitzari dagozkion ahalmenen kaltetan izan gabe.

b) Eskol eta amateur-kirolgintza bideratu eta bultzatzea, bereziki ondoko ekintza hauek burutuz:

. psikomotrizitatea eta haurren hezkuntza, kirol-heziketaren bidez.

. O.H.O.ko oinarrizko kirol-heziketan kolaboratu eta B.B.B.ko kirolgintzan hasiera ematea.

. haur mailako kirola bultzatzea (eskolatik kanpoko kirolgintza).

. kirol-eskolak antolatzea.

c) Kirol modalitate ezberdinak praktikatu ahal izateko, herritar guztiei benetako aukera eskaintzea, helduen aktibitate fisikoa (Guztiontzako kirola) bultzatzeko arreta berezia jarriz.

4. artikulua. - Bere helburuak bete ahal izateko, ondorengo iharduera hauetarako gaitasuna izango du Erakundeak:

a) Kirol instalazioak eraikitzeko edota jabetza edota usaera eskuratzeko.

b) Kirol instalazioak gertatu, kontserbatu eta administratzeko.

c) Aipatutako instalazio horien erabilpena koordinatzeko, eta bai udalerriko kirol iharduerarako programak ere.

d) Kirol-Elkarteek Batzorde Zuzendariari proposatutako erispideak oinarritzat harturik Udalbatzak onar dezan araudiaren arabera, kirol ihardueratarako diru-laguntzak emateko.

e) Erakundearen helburu ezberdinak bete ahal izateko beharrezko izan litekeen pertsonal tekniko eta administratiboa kontratatzeko.

f) Helburuak betetzeko beharrezko erosketa-egintzei eta ondasun higiezin eta higigarrien administrazioari buruzko hitzarmen edo kontratu, publiko nahiz pribatuak, formalizatzeko.

g) Erakundearen zerbitzu guztiak antolatzeko.

h) Organismo publiko eta partikularren diru-laguntzak eta beste laguntza mota batzuk eskatu eta onartzeko.

i) Helburuak ahalik eta hobekien betetzeko diruzaintzako kontratuak eta mailegu-eragiketak formalizatzeko eta, bere iharduketa-eremuaren barnean, agintari administratibo, gobernatzaile eta juridikoen aurrera agertzeko eta mota guztietako murtziloak eta akzioak tartejartzeko.

<u>5. artikulua. -</u> Erakundearen behin-behineko egoitza Arrasateko Udal Kiroldegia izango da eta, etorkizunean, Kultur eta Kirol Etzea, eraikitzen bada.

## II. KAPITULUA

## GOBERNU ETA ADMINISTRAZIO ORGANOAK

<u>6. artikulua. -</u> Kirol Erakundearen Gobernua eta Administrazioa Batzorde Zuzendariaren kargu izango da.

<u>7. artikulua. -</u> Honako kide hauek osatuko dute Batzorde Zuzendaria:

- Lehendakaria: Alkatea edo beronen ordezkari izango den udal bazkideren bat.

- Bokalak: - Udalean ordezkaritza duen alderdi politiko bakoitzeko zinegotzi bana, Lehendakariak berak ordezkaturiko alderdikoa izan ezik.

  - Ikastetxeen ordezkari bat.

  - Herriko Kirol Elkarteen hiru ordezkari.

  - Kirol instalazio munizipaleen erabiltzaileen ordezkari bat.

- Idazkaria: Organismoaren Gerentea bera izango da idazkari funtzioak beteko dituena, hitzarekin baina boturik gabe.

Beharrezko balitz, hitzarekin baina boturik gabe, Organismoko Kirol-Teknikariak eta Kirol-Medikuak ere esku hartuko dute Batzordean.

8. artikulua. - Batzorde zuzendariko kideak ondorengo irizpideon arabera izendatuko ditu Alkateak:

a) Udalbatza osatzen duten talde politikoen ordezkariak, talde horien bozeramaileen proposamenari jarraituz.

b) Ikastetxeen ordezkaria, Eskol Kontseiluaren proposamenari jarraituz.

c) Kirol Elkarteen ordezkariak, Elkarteen proposamenez.

d) Instalazioen erabiltzaileak harpideduna, adinez nagusia eta Arrasaten bizi eta bertako erroldan dagoena beharko du izan. K.I.U.B.aren proposamenez izendatuko da.

Batzorde Zuzendariaren eraketaren eta batzordekideen izendapenaren berri, egiten duen lehen batzarraldian emango zaio Plenoari.

9. artikulua. - Batzorde Zuzendariko kideek ondorengo kasuotan utziko dituzte beren karguak:

a) Norberaren eskariz.

b) Beren kargu bereziengatik Batzordean daudenak, kargu horiek uzten dituztenean.

c) Udal bazkideak, Batzordean sartzeko zituzten baldintzak amaitzen zaizkienean.

d) Erakunde eta Elkarte ezberdinen ordezkari diren batzordekideak, berorien gobernu-organoek horrela erabakitzen dutenean eta, edonola ere, izendatuak izan zirenetik bi urte igaro ondoren, nahiz eta berrautatuak izan litezkeen.

Edozein arrazoirengatik, posturen bat hutsik geratuz gero, batzordekide berria izendatuko da, ondorio guztietarako aurrekoaren ordezko izango dena, beronen berri Udal Plenoari emango zaiolarik.

10. artikulua. - Ondorengo funtzio hauek dagozkio Batzorde Zuzendariari:

a) Erakundearen Zerbitzu-Araudia eta Barne-Erregimeneko Araudia onestea eta bai berorien aldaketa, hedakuntza eta indarreratzeak ere.

b) Erakundearen helburuak betetzeko egokiak izan litezkeen iharduera-programak eta egitasmoak onestea eta behar bezala betetzea.

c) Egitasmo eta iharduera-programetan aurrikusitako obrak eta zerbitzuak kontratatzea, aurrekontuetako kontsignazioen arabera.

d) Erakundearen urteroko aurrekontu-proiektua egin, eta Udal Plenoari aurkeztea onespena eman diezaion.

e) Erakundearen gestio ekonomikoa garatzea, Udalak onetsitako aurrekontuaren arabera.

f) Harpidedunen onarpena eta egozketa, beharrezko denean.

g) Erabiltzaileei zerbitzu hobea eskaini asmoz, instalazioen kontserbazioa, mantenua eta hobakuntzak.

h) Beharrezko pertsonala kontratatzea, horretarako Udal Plenoak onetsitako aurrekontuen eta plantilaren arabera.

i) Estatutu hauen 2. artikuluan ezarritakoaren arabera, Organismoaren gaitasun juridiko osoaren ondoriozko egintza-mota guztiak burutzea, Udal Plenoarean eskuduntza esklusiboak ez badira, behintzat.

j) Organismora adskribatutako ondasunen inbentarioa urteko eratu eta berrikustea.

k) Zerbitzuen erabiltzaileek eginiko hutsegiteak zigortzea.

l) Organismora adskribatutako pertsonalaren disziplinazko espedienteak izapidatzea eta hutsegite arinak direnean erabakitzea ere bai.

11. artikulua. - Batzordea osatzen duten talde politiko guztiek, Erakundearen gobernuan erantzukizun maila berdina izan dezaten, banatu ahal izango dute heuren artean multzoka kirol-elkarteen jarraipena eta ardura. Multzoak erizpide egoki eta zentzuzkoen bidez sailkatu beharko dira.

12. artikulua. - Batzorde Zuzendariko Lehendakariari dagokio:

a) Bilkurak deitu, presiditu, eten eta jaiki eraztea, eztabaidak zuzendu eta botaziotan hainbanakoa dagoenean erabakitzea.

b) Organismoaren ordezkapena, ondorio guztietarako.

c) Presazko kasuetan, akzioak exertzatu edo egikaritzea, egindakoaren berri lehen batzarraldian Batzordeari emanez.

d) Akordioak bete erazteko beharrezko xedapenak diktatzea.

e) Batzordeak eman liezaiokeen beste edozein funtzio eta, oro har, zerbitzuen funtzionamendurik onenerako beharrezko xedapenak diktatzea.

13. artikulua. - Erakundeko Berezko Lehendakaria denez, Alkateari dagokio zerbitzuaren ikuskapen eta zuzendaritza nagusia, eta beraz, ondorengo kasu hauetan galerazi ahal izango du Batzordearen akordioak betetzea:

a) Delitu direnean.

b) Bere eskuduntzakoak ez diren gaiei buruzkoak baldin badira.

c) Herriaren interes orokorren edo kirol instalazioen aurkakoak direnean.

d) Udalaren Lege, Araudi, Ordenantza eta xedapenak nabariki hausten dituztenean.

14. artikulua. - Lehendakariak beste pertsona bat izendatu ahal izango du, beti ere bere alderdi politikokoa, Lehendakaria bera kanpoan edo gaixo izan, edo postua hutsik geratuko balitz, beraren funtzioak hartuko lituzkeena.

Batzorde Zuzendariko gainontzeko partaideak ere bere ordezkoez ordezkatuak izan ahal izango dira.

III. KAPITULUA

**BILKURA-ERREGIMENA**

15. artikulua. - Erakundearen Batzordea 30 egunean behin bilduko da izaera arruntez, eta Lehendakaritzak edo botu eskubidea duten batzordekideen herenak (1/3) beharrezkotzat jotzen duen guztietan.

16. artikulua. - Batzorde Zuzendariaren ohizko eta aparteko batzarraldietarako deiak Lehendakariak egingo ditu, gutxienez berrogeitazortzi ordutako aurrerapenaz eta bilkura bakoitzean erabiliko diren arazoen berri emango duen Eguneko Aztergaien Zerrenda ere bidaliko duelarik.

17. artikulua. - Bilkurak egiteko, eta Lehendakariaz gain, gutxienez honako kopuru hauek behar izango dira:

a) Batzordekideen erdia gehi bat, lehen deialdian.

b) Kideen herena bigarren deialdian, ordu erdi geroago.

18. artikulua. - Eguneko Aztergaien Zerrendan sartu gabeko gaiak ere aztertu ahal izango dira, baina aurrez presazkotzat aitortzen badira, eta honetarako, bilkurara etorritakoen gehiengoaren adostasuna behar izango da.

19. artikuloa. - Akordioak botuen gehiengoz hartuko dira, eta hanbanako kasuetan Lehendakariari dagokio kalitatezko botuaz erabakitzea.

IV KAPITULUA

**PERTSONALA**

20. artikulua. - Beharrezko pertsonala izango du Erakundeak, beroren kopurua, kategoria eta funtzioak, Batzordearen proposamenari jarraituz, Udal Plenoak onetsitako plantiletan zehaztuko direlarik.

Aipatutako pertsonal horren ordainketa Erakundearen aurrekontuan agertuko da.

21. artikulua. - Honako hauek osatu ahal izango dute pertsonal-plantilla:

a) Erakundera destinatutako Udalaren funtzionari edo enplegatuek.

b) Erakundeak berak kontrataturiko pertsonalak.

22. artikulua. - Udal funtzionari izan gabe, bere zerbitzurako behar duen pertsonala, zuzenean izendatu ahal izango du Batzordeak, baina Plenoak onetsitako plantilaren arabera eta kasu bakoitzean Batzorde Zuzendariak zehaztuko duen hautapen-prozesuaren aplikazioz beteko dira lanpostu horiek. Pertsonal hori lan-legeriaren menpe geratuko da.

23. artikulua. - Aurretik Udalbatzak onartuko balu, ondorengo plantila tekniko-zuzentzailea izango du Erakundeak:

- Gerentea
- Kirol Teknikaria
- Kirol Medikua

24. artikulua. - Ondorengo hauek izango dira Gerentearen funtzioak:

a) Batzorde Zuzendariko idazkari izatea, eta beraz:

- Bilkura-deietarako Aztergaien Zerrenda osatzeko Lehendakariari erabilgarri gerta lekizkiokeen gaiak prestatzea.
- Bilkuretako aktak idaztea eta, behin onespena hartu ondoren, akta-liburura transkriba ditzaten agintzea.
- Erakundearen liburu, dokumentu eta zigiluak zaintzea.

b) Erakundearen akordioak bete eta bete eraztea.

c) Gestio ekonomikoa garatzea, onetsitako aurrekontuaren eta ezarritako oinarrien arabera.

d) Espresuki kontsignaturiko ordainketa guztiak agintzea.

e) Erakundearen pertsonal-buruzagitza.

f) Arlo tekniko-administratiboko beste edozein funtzio, Kontseiluak horrela adierazten badio.

25. artikulua. - Kirol Teknikariari honako funtzio hauek dagozkio:

a) Beharrezko duenean, Erakundearen Batzordeari kirol arloko arazo guztietan aholkularitza ematea.

b) Udal instalazio publiko ezberdinetako kirol iharduerak koordinatzea, Kirol Erakundeak ezarritako programen barruan.

c) Kirol instalazio guztiak ikuskatzea, Erakundearen Batzordetik hartutako orientabideen arabera.

d) Herriko kirol elkarte eta organizazio ezberdinen Gestio-Organoekin batera, kirol lehiaketa, txapelketa, ikuskizun, etab. ak bultzatzea.

e) Kirolgintza ez-lehiakor eta eskolarra antolatu eta bultzatzea, eskualdeko gainerako udaletan eta Diputazioan gai honetaz arduratzen diren Organoekin batera.

26. artikulua. - Kirol medikuari dagozkio:

a) Kirolarien bereiztasun psikofisikoentzako egokienak izan litezkeen ihardueratarako orientabideak eskaintzea.

b) Neurri higieniko-dietetikoak zabaldu, eta beroriei buruzko aholkuak ematea.

c) Aldizkako kontrolak eta miaketa bereziak egitea, beren iharduera fisikoarengatik beharrezko duten pertsonei.

d) Lesio edo gaixoaldien ondoren berriro kirolgintzari ekiten diotenen jarraipena.

e) Kirol instalazioak erabiltzen dituztenen maila ezberdinetarako irakaskuntza, kirol hezkuntza eskolarrak garrantzi berezia izango duelarik.

f) Burututako ihardueraari buruzko txostenak aldizka zuzendaritzari aurkeztea, eta bai memoria ere zerbitzualdia amaitutakoan.

V KAPITULUA

**HIZKUNTZ ERREGIMENA**

27. artikulua. - 1982. eko Azaroaren 24ko, "Euskararen erabilpenaren Normalizaziorako Oinarrizko Legea"n eta "Euskal Herriko Elkarte Autonomoko Administrazio Publikoetan Euskararen Erabilpena eta Normalizazioa"ri buruz, Azaroaren 25eko 250/1986 Dekretuan ezarritakoa bete asmoz, ondorengo arau hauek ezartzen dira:

a) Euskara, bai herritarraren zerbitzurako hizkuntza eta bai lanerako hizkuntza izango da, horretarako, beharrezko neurri administratiboak hartuko dituelarik Erakundeak.

b) Erakundeko pertsonalak gaitasun egokia lortu beharko du bere funtzioak bi hizkuntza ofizialetan, nola batean hala bestean, bete ahal izateko.

c) Aurrerantzean kontratatatuko den pertsonalak gaitasun elebiduna beharrezkoa izango du.

d) Alderdi politiko, Elkarte, Ikastetxe eta Erakundean ordezkatutako gainerako estamentuei, gaitasun elebiduna duten pertsonak izendatzea gomendatuko zaie.

e) Erakundeak sorteraz dezakeen akta, espediente eta gainerako dokumentazio administratiboa idazterakoan euskarari emango zaio lehentasuna

f) Erakundeak izan ditzakeen kanpo-harremanetan ere euskararen normalizaziorako joera bultzatuko da.

g) Arau hauen aplikazioa orientatu, aholkatu eta gainikuskatzeko ahalmena izango du Udalaren Euskara-Zerbitzuak.

h) Kapitulu hau garatuko duen arautegia egingo du Erakundeak.

VI KAPITULUA

**ERREGIMEN EKONOMIKOA**

28. artikulua. - Erakundearen ondarea honako hauek osatuko dute:

a) Udal Kiroldegiak, Musakola Auzoan.

b) Gesalibar Auzoan dauden futbol-instalazioek (Atxabalpe Stadium-a).

c) Erakundeak eskura ditzakeen edo Arrasateko Udalak Organismo Autonomora adskribatu, ekarri edo xedeman ditzakeen beste ondasun batzuek.

29. artikulua. - Ondarea, Zerbitzuaren helburuetarako geratzen da xedemana esklusiboki, eta Udalari dagokio jabari osoz.

30. artikulua. - Fundazioaren baliabide ekonomikoak honako hauek izango dira:

a) Ondarearen produktu eta errentak.

b) Organismo publikoetatiko diru-laguntzak.

c) Helburu honetarako Arrasateko Udalak erabaki ditzakeen ekarpenak, bere aurrekontuen kargura.

d) Pertsona fisiko edo juridikoen dohain eta legatuak.

e) Harpidetuen kuota, instalazioetarako sarrera, antolatutako ikuskizun igeriketa, gimnasia, judo, aerobic, karate eta horrelakoen klase, etab.etatil Batzorde Zuzendariak ezar ditzan baldintzetan ateratako kopuruak.

f) Instalazioen akuratzeak eman lezakeena.

g) Lortutako aurrerakin eta maileguak.

h) Emana izan dakiokeen beste edozein baliabide.

31. artikulua. - Kirol Organismoaren Haziendak erantzungo du harturiko obligazio eta egindako zorrei buruz, erantzukizun horrek ez duelarik eraginik izango 27. artikuluan aipatutako ondarean.

32. artikulua. - Lortutado diru-sarrerak gastuak estaltzeko, erreserba-fondorako, lan-bermetarako fondorako, amortizazio eta interesetarako izango dira, eta gaineratikoa oso-osorik instalazioak eta zerbitzuak hobetu eta hedatzeko izango da, Kirol Erakundearen helburuak bete beharko direlarik.

33. artikulua. - Urteko Urtarrilaren 31 baino lehenago, aurreko urteko aurrekontuaren likidazioa aurkeztuko dio Batzorde Zuzendariak Udalari, bere onespena eman diezaion.

Halaber, urteko Ekainaren 1 baino lehenago, aurreko urteko kontu orokorrak eta Ondarea administratzekoak aurkeztu beharko dira.

34. artikulua. - Aurrekontuak ekitaldi ekonomiko bakoitzerako egingo dira, urte naturalak izanda kontutan; eta, legeak ezarritako epearen barruan, Udalari aurkeztuko zaizkio bere onespenerako.

VII KAPITULUA

**ERREGIMEN JURIDIKOA**

35. artikulua. - Batzorde Zuzendariaren akordioen aurka, gorako helegite edo errekurtsoak egin ahal izango dira Udalaren aurrean, hamabost egunetako epean.

Ebazpen hau izango da administrazio-bidearen amaiera.

36. artikulua. - Udalak , bere ekinbidez edota Batzordearen eskariz, aldatu ahal izango ditu Estatutu hauek, onespena emateko beharrezko izapideak aurrez egin ondoren.

37. artikulua. - Kirol Erakundearen eta Udalaren arteko harremanak Batzorde Zuzendariko Lehendakariaren bidez izango dira.

## VIII KAPITULUA

## TUTORETZAKO ERREGIMENA

38. artikulua. - Zerbitzua zuzendu eta babesteko eginkizun nagusia behar bezala burutzeko -eta hau, Udalari dagokio nahitaez-, Organismoaren gobernu- eta administrazio-organoak behartuta daude gestio hutsezko egintzak baino zerbait gehiago direnen berri Udalari ematera, batez ere, Estatutu hauen arabera, lehen eskuduntzetan zehatz-mehatz adierazitakoen artean ez badira agertzen.

39. artikulua. - Hala dagokien kasuetan, Zerbitzuaren gobernu- eta administrazio- egintzek baimena eta onespena behar izango dituzte, Estatutu hauetan eta gainerako xedapen aplikagarrietan aurrikusitakoaren arabera.

Edonola ere, tutoretza-ahalmenak honako hauetan erabili ahal izango dira

1 - a) pertsonalaren plantila eta beronen ordainketa.

b) laneko hitzarmen kolektiboak

c) Organismo Autonomoaren aurrekontua eta beronen likidazioa.

d) urteko kontuak.

e) ondasun higiezinen besterentze, lagapen edo karga.

f) kreditu publikora jotzea eta obligazio-jaulkipena.

g) erabiltzaileei kobratuko zaizkien tasak eta eskubideak.

h) Erakundeak emango dituen dirulaguntzak arautuko dituen arautegia.

2 - Ondorengo hauen berri izateko ere bai, alegia,

a) Erakundearen bilkuretako Aztergaien Zerrendarako gaiak, edozein kasutan ere, Udalbatzako idazkariari eta kontu-hartzaileari, Alkateari eta Gobernu-Batzordeari ere emango zaielarik berorien berri.

b) Erakundearen akordioak, era berean jakin eraziko direlarik.

40.artikulua. - Udalak ikuskapenak ere egin ahal izango ditu, berak izendaturiko pertsonen bidez.

IX. KAPITULUA

## DESEGINTZA

41. artikulua. - Arrasateko Udalak, Korporazio Lokalen Zerbitzu Arautegiko 30. artikuluak ematen dion ahalmenaz baliatuz, Organismoaren desegintza erabaki ahal izango du.

42. artikulua. - Organismoa desegiten bada, Arrasateko Udala izango da ondorengo unibertsalki.

## XEDAPEN DEROGATZAILEA

43. artikulua. - Arrasateko Kiroldegia Fundazio Publicoa erregulatzeko, 1981eko Otsailaren 17an Udalbatzak onartutako Estatutuak indarrik gabe gelditzen dira.